

Bardeetako martxa

PEDALEN INDARREZ EUSKARA BULTZATU

Nafarroa Oinez antolatzeaz arduratu da aurten Tuterako Argia Ikastola, baina ez da prestatzen duen ekitaldi bakarra: urtero, Euskal Herri osoko ikasleak batzen ditu Bardeetako Bizikleta eta Orientazio Martxan. Bizikleta aitzakiatzat hartuta, elkar ezagutzea, euskara bultzatzea eta naturaz disfrutatzea dituzte xede, besteak beste.

 MIKEL URABAIEN OTAMENDI
 ARGIA IKASTOLA

MARTXAREN LEHENENGO
ZATIA EGINDA,
CASTILDETIERRAN
INDARRAK HARTZEN.



Pasa den maiatzaren 9 eta 10ean Euskal Herri osoko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailako 280 ikasle inguru (14-16 urteko gazteak, gutxi gorabehera) bildu ziren Fontellasen, Tuteran. Bertan dago Argia ikastola eta Bardeetako Martxa zuten helburu. Edizio batzuetan 400 ikasle ere bildu izan dituzte.

Duela hamabost urte, Nafarroako hegoaldean euskara sustatzeko beharra zela-eta, ikastoletako Heziketa Fisikoko hainbat irakaslek Bardeetan pentsatu zuten. “Hau baino politagoa den eremurik ba al daukagu gure inguruan?”, dio Iraitz Rodríguez Argiako Soinketako irakasleak. Donostiarra da eta ikastola honetan bi urte besterik ez badaramatza ere, “erabat ohituta” dago Bizikleta Martxa antolatza. “Kide berriren bat iristerakoan, denon artean berehala sartzen dugu antolatze dinamikan eta erraztasun osoz irakasten diogu, nirekin egin zuten bezalaxe”.

Bazkalostean autobusez iristen dira ikasleak Keiles pasealekura eta hamabost irakaslek hartzen dute euren ardua. Taldetan banatzen dira eta kolore ezberdin bateko kamisetak ematen zaizkie. Ondoren, elkar ezagutzeko jolas batzuk, alkatearen harrera udaletxean eta ginkana bat egiten dute Tuteran barna.

ELKAR EZAGUTZEN

Mapatxo bat eskutan dutela, hiria ezagutzeko parada da ginkana, bertakoe-kin harremanak estutzeko eta bide batez orientazioa lantzeko. Jolasaren ostean, aurten ikasle guztiak “biribil batean eseri eta elkarren artean hizketan jarri ziren”, gogoratu du irakasleak. Behin “kanpoko gazteei beren etxera ongietorria emateak bertako ikasleei sortzen dien urduritasuna” gaindituta, ikastolara abiatzen dira afaldu eta festa bat ospatzeko. “Aurten, punk talde bat duten ikasle batzuk frontoian kontzertu bat ematera animatu ziren”, gehitu du Rodríguez.

Bere hitzetan, 14 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat onuragarria da alkoholik gabeko festa batez disfrutatzea, adin honetan maiz hasiak direlako dagoeneko lokalean garagardoak edaten, eta festa alkoholarekin identifikatu ohi dute.



MIKEL URBAIEN

Hurrengo goizean, gosaldia eta autobusetan joaten dira Bardeetara. Artzainaren Monumentutik abiatu eta Bardeetako Castildetierra tontor eza-guneraino doa Martxaren lehen zatia. 20 kilometroak bizikletaz egin ostean, hamaiketako jateko geldialdia egiten dute. Ez da arraroa izaten bertan argazkiren bat atera eta atsedendia hartzeko aprobetxatzea, ezta buruen gainetik hegazkin militarrek pasatzen ikustea ere, Bardeetako tiro eremuan manio-brak egiten ari direla.

Rodríguezek gogoan du Argian klaseak ematen hasi eta lehegailu bat entzuterakoan hartzen zuen sustoa: “Lurrikara zela pentsatzen nuen”. Ikasleak, ordea, aski ohituta daude ez tandem danbada entzutera. “Bardeetako Martxara Euskal Herriko beste lekuetatik datozen ez dute horren berririk eta harrিতa geratzen dira; badaezpada ere, tiro eremura sar ez daitezzen zaintzen egoten gara irakasleok”.

Hamaiketako hartu eta gero, bigarren txanpari ekiten diote: aldapatsuagoa eta gogorragoa da bigarren zatia. “‘Nik ez dut egingo’ sarritan entzuten da”. Erriberan euskararekin ere antzeko zerbaite gertatzen da. Rodríguezek dio inguruko hainbat gazteri ez zaiela naturaltasunez atera-

tzen euskaraz egitea, ez dutela ama hizkuntza. Gainera, Argia ikastolako 200 ikasleetatik asko Nafarroa hegoaldeko herrietatik datoz, “eta zonalde horietan ez da euskaraz egiten ia inoiz; egunerokoan ez dute erabiltzen”. Horregatik ere bada interesgarria euskara errotuago dagoen beste ingurune batzuetatik gerturatzea gazteak, eta Nafarroa hegoaldekoekin hizkuntza horretan solastatzea.

OFIZIALTASUNAREN BEHARRA

Euskara ez da ofiziala Erriberan eta zonifikazioaren ondorioz, zonalde “ez euskalduna” deiturikoan hezkuntza sistemak ez du D ereduaren irakaskuntza bermatzen. Nafarroako lurraldearen %43az ari gara eta zehazki, 180.000 biztanleri eragiten die horrek (Nafarroako biztanleriaren %28). 110 udalek kudeatutako 4.215 kilometro koadro dituen eremu honetan guztian, Argia ikastolaz gain bakarrik sei ikastetxe publikok (Caparroso, Zarrakastelu, Castejón, Zentroniko eta Lodosakoak) eta itunpeko batek (Lodosako Ibaialde Ikastolak) eskaintzen dute euskaraz ikasteko aukera, eskari nahikoa baldin badago. Hori bai, Lehen Hezkuntza bukatutakoan akabo, ez dago goragoko ziklorik ikastetxe horietan, eta denek dute PAI ingeles eredu polemikoa, Ibaialdek izan ezik. Tuteran, hegoaldeko hiri nagusian, bat bera ere ez dago. “DBH bukatu ondoren, ikasleek kanpora joan behar dute, ikasketekin jarraitu nahi izanez gero”, azaldu du Rodríguez.



BARDEETAKO MARTXAREN AZKEN EDIZIOAN PARTE HARTU DUTEN GAZTEAK, TUTERAKO UDALETXE AURREAN. EZKERREKO ORRIKO ARGAZKIAN, IRAITZ RODRÍGUEZ IRAKASLEA, ATZEAN ARGIA IKASTOLA DUELA.

Heziketa Fisikoko irakaslearen esanetan, Argiako azken mailako ikasleak, 4. DBHkoak dira Bardeetako Martxan euskaraz aritzeko ardura handiena hartzen dutenak: “Heldutasun puntu hori dute dagoeneko eta kanpoko ikasleekin euskaraz harremanak egiten saiatzen dira”. Beraiek izan ohi dira baita ere Castildetierratik Yugoko Amabirjinarainoko 11 kilometro dituen Bizikleta Martxaren bigarren txanpa egitera lehenengo ausartzen direnak.

“Zati honetan ikusten ditugu tomaten aurpegi gehien”, aipatu du barretsu Soinketako irakasleak. Hala ere, euskararen erabilerarekin gertatzen den modu berean, hasieran gorritu bai, baina azkenean Euskal Herriko talde handi baten indarrak “nerabe lotsatiak animatu” eta Martxaren bigarren txanpa ia denek egiten dute. Amaieran, migak eta txistorra bazkari tipiko aparta dute zain.

“Ikasle ohiek kontatuta, gerora irribarretsu gogoratzen duten esperientzia izaten da hau”. Eta esperientzia errepikatzen jarraitzeko asmoa du Argia ikastolak. Gaur egun, Bardeetako Martxaren helburu nagusia da Erriberako ikasleen artean euskara sustatzea; etorkizunean, nahiko lukete Euskal Herriko txoko honetan euskarak akuilurik behar ez duela-eta, naturaz gozatzea izatea Martxaren helburua, ez besterik. ●

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

**Ezagutu
Euskal Herriko
animaliak!**

Euskal Herriko lurralde banatako
zazpi ekosistema eta
42 animalia ezagutuko ditugu.

azoka.argia.eus

AZOKAN
SALGAI!
15€

Edukiak

Iñaki Sanz-Azkue

biologoa

Ikuspegi pedagogikoa

Lore Erriondo

EHUko irakaslea

Marrazkiak

Eñaut Aiertzaguen

irribarrez.info